

Komando Antilimako

Urtebeteko epean 6 kontzertu eskaini dituzte talde ermuar honetako kideek eta eurek sortutako abestiak sistemaren kontrako ereserkiak dira.

1 Duela urtebete sortu genuen taldea, musika gustatzen zaigulako, musika jotzea atsegin dugulako eta jendeak abesten ditugun sistemaren kontrako abestien mezuekin identifikatzea nahi dugulako.

2 Izena... txikitako kontuak dira! Taldekide guztioi iruditu zitzaigun jo behar genuen musika estiloa egokitzen zela eta horregatik aukeratu genuen.

3 Hiru lagun gara: David (baxua eta ahotsa), Maikel (gitarra eta koroak) eta Iban (bateria eta koroak). Hasieran gitarra jotzen zuen laugarren taldekidea genuen, Jose, baina lehen bi kontzertuetan baino ez zen egon.

4 'Auzoko punk'-a egiten dugu. Gure musikak protesta egiten du eta jendeak gure mezua entzun eta baloratzea nahi dugu. Gure kontzertuetan jendea gurekin identifikatzea eta ondo pasatzea da gure nahia.



5 Guk sortzen ditugu gure letrak eta musika. Gure abestiek gure gizarteko bizitzaz hitz egiten dute. Era berean, ozen esan eta publikoarekin konpartitu nahi ditugun bizipen pertsonalei buruz hitz egiten dute gure letrak.

6 Betitxartoko lokaletan entseatzen dugu. Gure 'box' berean entseatzen duten beste talde batzuekin adostutako ordutegia dugu.

7 Sei kontzertu egin ditugu gure lehendabiziko urte honetan, oso animatuak izan dira denak eta hainbeste maite dugun publikoa ondoan izan dugu. Azken kontzertua irailaren 28an egin genuen, Mallabiko Herriko tabernan, eta bertan guk geuk

grabatutako maketa oparitu genien gu ikustera joan ziren guztiei. Hurrengo kontzertuetarako beste aukera batzuk baloratzen ari gara.

8 Aipatu dugun maketa hori besterik ez dugu kaleratu, Betitxartoko gure boxean grabatu genuena. Ez dago salgai, baina kontzertuetan oparitzen dugu. Urtebete barru, hala ere, CDa grabatua izatea nahiko genuke.

9 Myspacen gure abestietako batzuk entzun daitezke eta gure kontzertuetan burua galtzen dugunean ateratako argazkiak ere ikus daitezke. Gainera, komandoantilimako@hotmail.com helbidea dugu eta baita facebook: komandoantilimako.

OKINDEGIA GOZOTEGIA

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

38 urte Ermua euskalduntzen